



hitzaldia

LEGAZPI. Gaur, 19:00etan, Burdinola elkarte.

JOSE ANTONIO AZPIAZU¹ HISTORIALARIA

«Kortsarioen bizimodua arrunta zen XVI. mendean»

LEIRE ARAMENDI DONOSTIA

Historias de corsarios vascos liburuaren inguruan mintzatuko da Jose Antonio Azpiazu gaur arratsaldean, Legazpiko Burdinola elkarte. Abenduan aurkeztu zuen liburua historialariak. XVI. eta XVII. mendeko kortsarioen istorioak jaso ditu. **Nolakoak ziren Euskal Herriko kortsarioak?** Kortsarioak eta piratak bereiztu behar dira. Kortsarioek erregeak emandako baimen berezia izaten zuten; piratak, berriz, beraien aldetik ibiltzen ziren. Piratei buruz dugun irudia da, filmetan eta eleberrietan agertzen dena; Karibe inguruan ibiltzen zirenak. Hemengo kortsarioak desberdinak dira; merkataritza interesak defendatzeko asmoarekin sortu ziren. Itsasoa zabala eta arriskutsua da, eta interesak arriskuan ikustean, beraien burua defendatzen dute horretarako baimenarekin. **Euskal Herritarrek beraien artean ere izan zituzten borroak; Gipuzkoarrek, bizkaitar eta lapurtarrek.**

Bai, interesen arabera. Hondarribia eta Donostia muga ondoan daudenez, toki arriskutsua zen eta derrigorrez defendatu behar ziren. Merkataritza alde batera utzi, eta kortsario bizimodura aldatu ziren. Bilbotarrak, berriz, mugatik urrutiago zaudenez, ez zuten arriskua ikusten eta merkataritza erabat sartuta zeuden. Ondorioz, beraien artean kontraesanak zeuden. Iparraldekoekin ere arazoak izan zituzten.

Nola hasi ziren kortsarioen istorioak biltzen?

XVI. mendeko merkataritza aztertzen jardun izan naiz. Ikertu gabeko esparru asko daude: merkataria, emakumeak eta baita pirata eta kortsarioak ere. Merkataritza barneko mundua da. Itsasoa gogorra eta arriskutsua zen, kortsarioen bizimodua arrunta zen XVI. mendean itsasoa.

Dokumentuetan oinarritutako istorioak idatzi dituzu.

Bai, ez naiz gai fikzioa kontatzeko. Alde horretatik, historia fikzioa baino aberatsagoa da. Egiak istorioak dira, nahiz eta kontatzerakoan literatura pixka bat egin. Dena den, gehiago egingo dut hori bigarren liburuan.

Beraz, euskal kortsarioei buruzko bigarren liburua prestatzen ari zara.

Bai, Durangoko azokarako atera nahi dut. Egiazko gertakarietan oinarrituta egongo da, baina ari nagoa egin nahi dut. Donostiako Kanpanario ospetsua eta beste pertsonaia batzuekin.

Orain arte, euskal kortsarioei buruz ez da asko entzun.

Horri buruzko dokumentu ugari daude, baina Euskal Herriko historia oraindik egiteko dago. Gauza asko dago, baina gutxi ikertu da. Gure historia kanpotik kontatu izan digute, eta ez dugu ezagutzen.

dantza

BOKALE. Amazonas. Bihar, 21:00etan, Vaillant-Couturieren. Revolution konpainiaren eskutik.
ZUMARRAGA. Dantza emanaldia. Gaur, 19:00etan, Zelai Arizti aretoan.

hitzaldiak

ANTZUOLA. Antsietatea; aurre egiteko gakoak. Bihar, 18:00etan, Olanaren. Oihana Etxaberen eskutik.
ARETXABALETA. Euskal sukaldaritzaren antropologia liburua aurkeztuko du Edorta Agirrek. Bihar, 19:00etan, Udalte Zaharrea.
ARRIGORRIAGA. Agenda 21ari buruzko solasaldia. Bihar, 19:30etan, Lombon.
BEASAIN. Futbolari buruzko mahai ingurua. Bihar, 20:00etan, Usurbe antzokian. Parte-hartzaileak: Jabo Irureta, Pako Aiestaran, J. M. Seco, Javier Artabe eta Mikel Lasa. Aurkezlea: Xabier de la Fuente.
BERMEO. Basoa erabiltzeko planteamendu barria: Gaztañarreko basoan martxan dagoen esperientzia. Gaur, 19:30etan, Nestor Basterretxea aretoan. Hizlaria: Claudia Maldonado.
BERMEO. Energia berriztagarriak (eguzkia...) aprobetxatzeko aukerak Bermeon. Bihar, 19:30etan, Nestor Basterretxea aretoan. Imanol Asolok hitz egingo du.
BILBO. La certificación energética de edificios en el País Vasco y el proyecto de real decreto. Gaur, 19:30etan, Arkitektoen Elkargoan. Hizlaria: Jose Manuel Borque.
BILBO. Autonomiak estatu espainolean XXI. mendean. ¿Irtende ala arazo? mahai ingurua. Bihar, 20:00etan, Bizkaiko Batzar Nagusietan. Hizlariak: Anton Losada, Vicenc Villatoro eta Javier Perez Royo.

BILBO. *Obsesidad: ¿Culpable o inocente?* Bihar, 19:30etan, Deustuko Unibertsitateko Gradu aretoan. Harvard Medical Schooleko Arturo Rollaren eskutik.

BILBO. *Encrucijada emocional* liburua aurkeztuko du Karmelo Bizkarrak. Bihar, 19:30etan, Liburuaren Etxean.

BURLATA. *La pelota vasca* mahai ingurua. Bihar, 20:00etan, Axular kultur elkarte. Hizlariak: Abel Barriola, Asier Olaizola, Iñigo Ezkurra, Iñaki Elorza eta Tomas Ezkurra.

BURLATA. *Kubako Iraultza sozialista.* Frank Josue Solarrek hitz egingo du (Kubako Gaztedi Komunistako kidea). Ostiralean, 19:00etan, Gaztetxean.

DONOSTIA. *Reflexiones sobre la obra de Teilhard de Chardin (1881-1955) en el cincuentenario de su muerte.* Gaur, 19:30etan, Koldo Mitxelena Kulturunean. Ignacio Cacho Nazabalen eskutik.

DONOSTIA. *La autoedición a debate.* Gaur, 19:30etan, Okendo kultur etxean. Iñaki Aldecoaren eskutik.

DONOSTIA. *Sobre la verdad inútil.* Gaur, 17:00etan, Artelekun. Belen Gopegiren eskutik.

DONOSTIA. *Paris no se acaba nunca* literatur solasaldia. Bihar, 19:30etan, Loiolako kultur etxean. Gidatzailea: Jorge Carrero.

DONOSTIA. *Lau elkartasun esperientzia.* Bihar, 19:30etan, Lugaritz kultur etxean.

DONOSTIA. *Concepción teilhardiana de la ciencia y la convergencia humana.* Bihar, 19:30etan, Koldo Mitxelena kulturunean. Hizlariak: Agustin Udias Vallina.

EIBAR. *Zahartzaro osasuntsuaz gozatzeko pautak.* Gaur, 17:00etan, Untzagako jubilatuetan. Hizlaria: Jose Luis Martin.

GASTEIZ. *Afrika, esperantzatik.* Bihar,

20:00etan, Hikaateneoan. Mbuyi Kabunda Badiaren eskutik.

HELETA. *Lurra eta etxebizitza Baxe Nafarroan: nola buru egin?* eztabaida publikoa. Bihar, 20:30etan, Erregelu gelan.

HONDARRIBIA. Rafael Ruiz Balerdi eta Jose Luis Zumetari buruzko mintegia. Gaur, 18:30etan, Zuloaga etxean. Leire Makazaga eta Jose Luis Zumetaren eskutik.

IBARRA. Kubako Iraultza Sozialista. Kubako Alderdi Komunistako kide Frank Josue Solarren eskutik. Bihar, 19:00etan, Gaztetxean.

IRUN. *Jangela solidaria.* Gaur, 19:30etan, Imanol Apalategi mintzatuko da.

IRUÑA. *Calles con historia e historiadores con calle* eta *Presencia y ausencia de las mujeres en las calles de Pamplona* hitzaldiak, Patxi Kaspistegi eta Gemma Pierolaren eskutik. Gaur, 19:00etan, Nafarroako Artxibategi Nagusian.

IRUÑA. *Emakumeak, lanak eta bizitzaren jasangarritasuna.* Bihar, 20:00etan, Gurutze plazako institutuaren. Cristina Carrascok hitz egingo du.

LARRABETZU. *Robert Capa gerrako argazkilaria*ren biografia. Gaur, 20:00etan, Hori Bai gaztetxean. Hizlaria: Edorta Jimenez.

LARRABETZU. Agur Euzkadi Lauaxetaren gaineko mahai ingurua. Bihar, 20:00etan, Hori Bai gaztetxean.

LAUDIO. *Alimentos transgénicos.* Gaur, 19:30etan, Kultur Etxean. Helen Groomeren eskutik.

LEGAZPI. *Historias de corsarios vascos* liburuaren inguruan hitz egingo du Jose Antonio Azpiazu. Gaur, 19:00etan, Burdinola Elkarte.

LESKA. *Eskola garaiko oroimenak* solasaldia. Bihar, 17:00etan, Irain

eskolan. Ondoren, 19:00etan bideo emanaldia: *Ikasleak urteetan zehar.*

SANTURTZI. *Los pueblos indígenas resisten, defendiendo su autonomía, la tierra y los recursos naturales.* Bihar, 19:30etan, Mamarigako kultur etxean. Omar Angel Perezen eskutik. *La Tierra es nuestra esperanza. La resistencia al Plan Puebla Panama* bideoa emango dute.

ZESTOA. Ingurumenari buruzko hitzaldia. Bihar, 20:00etan, Kultur Etxean.

ikus-entzunezkoa

ALEGIA. *Collateral* filma. Gaur, 21:30etan, Gaztetxean.

ANTZUOLA. *Los increíbles* filma. Ostiralean, 22:30etan, Pilotaleku txikian.

ASTIGARRAGA. *7 pareta, 7 kontinente* ikus-entzunezkoa. Gaur, 19:30etan, Kultur Etxean. Eneko eta Iker Pouren eskutik.

BILBO. *Ke arteko egunak* filma. Gaur, 19:30etan, Begoñako udalategian.

BILBO. *Electric earth* bideo ekoizpena Britainia Handian. Gaur 17:00etan, eta bihar 18:00etan, Rekalde aretoan.

DONOSTIA. *Les Charmes de l'existence, Le Sabotier du Val de Loire* eta *Voici le temps des assassins.* Gaur, 20:15etan, Antzoki Zaharrea. Nosferatu zine zirkularen barnean.

URRETXU. *Trenes rigurosamente vigilados* bideo emanaldia. Bihar, 21:30etan, Kultur Etxean.

bestelakoak

ASTIGARRAGA. Ipuin kontalaria. Bihar, 18:00etan eta 18:30etan, liburategian.

BILBO. ACT jaialdia. Gaur, 20:00etan, Kafe Antzokian.

DONOSTIA. Poesika eskailera. Bihar, 20:30etan, Beti Boga taberna (Egia).

DONOSTIA. *Beste ubazterretik, emakume arabiarrik.* Arabiar kulturari buruzko tailerrak. Bihar, 17:00etan, Garraldi emakume elkartearen eta Ipar Haizea auzokideen lokaletan (Intxaurren). Ondoren, 18:30etan, hitzaldia: *Emakumeen egoera Magreben.*

ERRETERIA. Mikelako ahotsak: Ander Fernandez eta Iker Fernandez emanaldia. Bihar, 20:00etan, Mikelazulon.

ERRETERIA. Yolanda Arrietak gidatutako literatur lantegia. Ostiralean, 20:00etan, Mikelazulo kultur elkarte.

ERRETERIA. *Momodijipodoak* ikuskizuna. Ostiralean, 20:30etan, Mikelazulon.

LASARTE. Haur jolasak. Gaur eta bihar, 18:00etatik 19:30era, Zabaleta auzoko jaietan.

LEGAZPI. Korri, Xalto eta Brinko ipuin kontalariak. Bihar, 18:00etan, udal liburategian.

erakusketak

ALTSASU. *Arhukoak* indigenei buruzko erakusketa. Ekainaren 12a arte, Gure Etxean.

ANDOAIN. Ignacio Goitiaren *Una scene quotidienne* erakusketa. Ekainaren 29a arte, Antirrealismos erakusketa gunean.

BERGARA. Zeramika lanak. Simon Arrieta tailerraren eskutik. Ekainaren 5a arte, Kultur Etxean.

BILBO. *Transformables*, Maite Carazoren erakusketa. Ekainaren 18a arte, Bilbao Arte Fundazioan.

BILBO. *Eta zuk nola ikusten duzu* margo erakusketa. Ekainaren 3a arte, Otxarkoagako auzo etxean.